

HERNANI / HHH ikastetxeak liburutegia irekiko du herriko jendearentzat

HERNANI. DV. Urriaren 10etik aurrera, eta beste urteetan izandako esperientziarekin jarraituz, Hernaniko Helduen Hezkuntza Ikastetxeak bai bere liburutegia, bai bere ordenadore gela zabalduko ditu berriro herriko jendearentzat. Zerbitzu hau Udaleko laguntzarekin egiten da.



Ordenadore gela ere irekita izango da bizilagunentzat. [DV]

Gogoratu nahi dute ekimen honekin Hernanin jadanik dagoen kultur eskaintza publikoa zabaldu nahi dela, bereziki zentrotik urrutirago dauden auzoetara (Antziola, Sagastialde, Etxeberri...) baliabide hauek hurbilduz.

Liburutegira edota ordenadore gelara (12 ordenadore sarean) hurbiltzen den edozeinek aukera zabala izango du: aldizkariak eta eguneroko egunkariak irakurri; entziklopediak, urtekariak eta datu estatistikoak kontsultatu; multimedia materiala erabili; liburuak maileguan lortu; Interneten nabigatu (ADSL konexioa); ordenadoreekin aritu, eta abar luze bat.

Dohainik

Zerbitzu hau dohainekoa da. Bi gela hauek erabili ahal izateko adinez nagusia eta erabiltzaile txartela izan behar dira. Astelehenetik ostiralera, goizeko 11:30etik eguerdiko 13:30a arte eta arratsaldeko 6:30etik 9:00ak arte liburutegi eta ordenadore gelako ateak egongo dira zabalik, Hernaniko HH ikastetxean, Antziola 62, 943 335318 telefonoa